



ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

2015eko EEBren
jardueren memoria
Etxebizitzaren Euskal Behatokia
2016

administración

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak (aurrerantzean EEB) hainbat jarduera egin ditu 2015ean profesionalei, erabakitzaile politikoei eta, oro har, herritarrei **etxebizitzari buruzko informazioa eta ezagutza helarazteko**.

Eusko Legebiltzarrak Etxebizitzari buruzko Legea onartzeak eragin nabaria izan du EEBren lanean, informazio eta ikerketa gehiago eskatu eta programatu gabeko ekintzak eta jarduerak egin behar izan baitira.

Hala ere, jarraitu dugu berezko ikerketak egiten, estatistika-txostenak garatzen, elkarrizketak egiten, unibertsitateekin eta askotariko erakundeekin elkarlanean aritzen, newsletterrak argitaratzen, informazio-infografia berriak gauzatzen eta jardunaldietan hizlari edo laguntzaile gisa parte hartzen, besteak beste.

Halaber, etengabe hobetzeko eta berritzeko dinamikien aldeko gure uste sendoari jarraikiz, barne-proiektuak jarri dira abian teknologia berriekin bat datorren eta informazio-eskatzailentzat eskuragarria den zerbitzua eskaintzeko.

H2020 europar proiektuak garatzen ikasi dugu, bai eta gobernu-agiri horizontalak idazten eta egiten lagundu ere, hala nola Parte Hartzerako Bidaia Gida, Gardentasunerako Gida eta Parte Hartzeko Prozesuak Ebaluatzeko Eredua.

Beraz, emankorra eta bizia izan da 2015eko ekitaldia, eta jarduera nagusien dibertsifikazio handiagoa ekarri du.

2015eko EEBren jarduerak

Honako txosten honek erabaki politikoak hartzeko prozesuaren, sektoreko profesional eta akademikoen, hedabideen eta herritarren beharrezko erantzuteko asmoz 2015ean egin diren jarduerak laburtzea du helburu.

Urte horretan, hasieran esan legez, jarduera berriei ekin diegu, gure mugak gainditu ditugu eta gauzak gertatzea eragin dugu; legebiltzarreko bilakaerak berak, berriz, 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena helarazi zigun. Horrek hurbiltzeko, ulertzeko eta aztertzeko sekulako ahalegina eskatzen zuen eta, aldi berean, gure konpromisoak betetzen saiatu behar genuen.

Txostenak eta ikerketak

Etxebizitzaren arloko 20 txosten egin dira (2015 hasieran egutegi batean adostutakoak), Eusko Jaurlaritzaren estatistika ofizial eta ez-ofizialeko planaren etxebizitzari buruzko atala eta Erregistratzaileen Elkargoaren Erregistro Estatistika garatzeko.

Bost ebaluazio-txosten egin dira etxebizitzaren arloko Eusko Jaurlaritzaren jardunbideei eta herritarrei emandako zerbitzuen analisiari buruz.

Etxebizitzaren Legearen ezarpenaren eta horren eraginaren ondorioz, EEBk horri buruzko zenbait ikerketa garatu zituen berariaz. Horrez gain, Etxebizitzaren Legearen azterketa xehatuari buruzko **barne-txosten orokorra** egin zen.

Araudiak adierazitako behar horri beste batzuk erantsi zaizkio ekitaldiaren bilakaeran, gure laguntza dela kausa.

Guztira **8 ad hoc ikerketa** argitaratu dira.

Azkenik, 2014ko eta 2015eko Euskadiko etxebizitzaren merkatuaren adierazle nagusiak biltzen dituzten **lau aginte-taula** osatu dira, esploratzeko erraza den diseinu erakargarri batekin.



**ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA**
OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

Etxebizitzaren merkatuko adierazleak. EAE. (2. hiruhilekoa. 2015)

Salneurri eta kostuak

Merkatuaren jarduera
▶

Finantzaketa
▶

Lan Merkatua
▶

* a.g. (argitaratu gabe)

SALNEURRI ETA KOSTUAK	URTEROKO DATUAK				HIRUHILEROKO DATUAK					HILEROKO DATUAK (2014 2015)				
	2011	2012	2013	2014	II-14	III-14	IV-14	I-15	II-15	abr-15	may-15	jun-15	jul-15	ago-15
Eskaintza salneurriak (Etxebizitza eskaintza. Eusko Jaurlaritza)														
Etxebizitza aske berria (Euro/m ² erabilgarriko)	3.769,5	3.742,1	3.486,2	3.338,9	3.398,9	3.364,9	3.338,9	3.319,8	3.296,1					
Urte-arteko tasa	-2,8	-0,7	-6,8	-4,2	-6,6	-5,5	-4,2	-3,4	-3,0					
Etxebizitza erabilia (Euro/m ² erabilgarriko)	3.841,6	3.564,7	3.171,7	3.058,2	3.065,1	3.058,2	3.058,2	3.081,9	3.030,8					
Urte-arteko tasa	-1,3	-7,2	-11,0	-3,6	-8,2	-5,7	-3,6	-0,3	-1,1					
Tasazioak. Etxebizitza Ministerioa¹														
Etxebizitza aske berria (<= 2 urte) Euro/m ² eraikitako)	2.640,6	2.524,1	2.587,7	2.551,4	2.559,2	2.536,2	2.551,4	/	/					
Urte-arteko tasa	-3,3	-4,4	2,5	-1,4	-0,1	-2,1	-1,4	/	/					
Etxebizitza erabilia (>2 urte) Euro/m ² eraikitako)	2.521,3	2.484,4	2.388,3	2.355,1	2.385,4	2.384,4	2.355,1	/	/					
Urte-arteko tasa	-3,0	-1,5	-3,9	-1,4	-4,7	-3,0	-1,4	/	/					
Etxebizitza aske berria (<= 5 urte) Euro/m ² eraikitako)	/	/	/	/	2.736,1	2.688,8	2.662,4	2.769,2	2.716,0					
Urte-arteko tasa	/	/	/	/	/	/	/	1,0	-0,7					
Etxebizitza erabilia (>5 urte) Euro/m ² eraikitako)	/	/	/	/	2.430,2	2.432,2	2.399,1	2.388,0	2.425,6					
Urte-arteko tasa	/	/	/	/	/	/	/	-1,6	-0,2					
Etxebizitza salneurri indizea. INE	-7,7	-15,1	-8,4	-0,5	-1,4	-1,9	0,0	-0,7	1,9					

Guztira, 38 txosten eta ikerketa egin ditu EEBk 2015ean.

Jardunaldiak eta hitzaldiak

EEBk **6 ekitalditan** parte hartu du nolabait, bertan egonez nahiz hitzaldietan lagunduz:

ETXEBIZITZAREN ARLOKO ADITUEN 2. TOPAKETA

Akademikoak eta teknikariak elkartzea ahalbidetu duen elkarlanerako sarea da, 2014an sorturikoa, etxebizitza-politika publikoaren arloko estatuko Unibertsitateetako aditu eta gobernu autonomikoetako zein udal-gobernuetako ordezkari berritzaileenak biltzen dituen akademia-formatu ireki batean.

Bertan, hain zuzen, hartzen du parte Etxebizitzaren Euskal Behatokiak. Sarearen xedea da etxebizitzaren sektore publikoan balio erantsia sortzen laguntzea.

Informazio gehiago: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/evento/2-encuentro-expertos-en-vivienda-en-barcelona/r41-ovad05/es/>

ETXEBIZITZA IZATEKO ESKUBIDEA ERAIKITZEN. AVS ALACANT

Etxebizitza eta Lurraren Sustatzaile Publikoen Espainiar Elkarteak etxebizitza izateko eskubide subjektiboari buruzko jardunaldi interesgarri bat antolatu zuen. Bertan, Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen zuzendari Miren Saratxagak (horren zuzendaritzaren mende dago EEB) Euskadiko Etxebizitzaren Legeari buruzko hitzaldia eman zuen.



Informazio gehiago: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/evento/jornada-avs-en-alicante/r41-ovad05/es/> eta <http://www.promotorespublicos.org/noticias/ver/jornada-construyendo-el-derecho-a-la-vivienda>

HIRI-BERRONERATZEA ETA ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA: KUDEAKETA-EREDU BERRIETARANTZ

2015eko Kudeaketa Aurreratuari buruzko Aste Europarra dela eta, Visesak jardunaldi bat antolatu zuen, non Plangintzaren eta Prozesu Eragileen zuzendariak eta Etxebizitzaren Euskal Behatokiak txosten bat gehitu zuten honako hauek azaltzeko: hiri-birgaitzeak, -berritzeak eta -berroneratzeak egiteko Eusko Jaurlaritzaren laguntzen kudeaketa-eredu berriak, araudi berria aldatzeko egin diren partaidetza-prozesuak eta abiarazi diren finantzaketa-aukerak.

Informazio gehiago: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/evento/semana-europea-de-gestion-avanzada-2015/r41-ovad05/es/>

PARTAIDETZA-PROZESUA BIRGAITZE-TAILERRETAN

2013-2016 ekitaldirako Etxebizitza Plan Zuzendariaren esparruan, Etxebizitza Sailburuordetzak lan-programa bat bete du partaidetza-prozesu baten bitartez, krisialdi ekonomikoa eta finantzaketara iristeko arazoak ikusita, Euskadin eraikinak birgaitzearen eta hiria eraberritu eta berroneratzearen alorrean sortu diren premiak ikertzeko. Zehazki: birgaitze-tailerak sortu ditu, herritarren partaidetzarako informazio-karpak jarri ditu hainbat euskal udalerritan eta galdeketak egin dizkie birgaitze-lanetarako diru-laguntzen onuradunei eta finka-administratzaileei.



Prozesu osoari buruzko informazio gehiago, dokumentazio gehigarria eta ondorioak hemen: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/informacion/nuevo-proceso-de-participacion-ciudadana-en-la-elaboracion-de-la-politica-de-vivienda-en-euskadi/r41-ovad04/es/>

EEBren webguneak eta bloga

EEBren webguneak arazo tekniko larriak izan ditu 2015eko ekitaldiaren amaieran, jasandako arazo informatiko etengabeen ondorioz. Horiek direla bide, Interneteko bilatzaile nagusiek webgunea bisitatzearen arriskuaren berri ematen zuten. Bloga izan da kaltetuena, zalantzarik gabe; izan ere, haren egitura dela eta, pirata informatikoez behin eta berriz eraso diete haren edukiei 2015ean, eta batzuetan hura publikoki agertzea ere galarazi dute.

Webguneak 14.219 saio izan ditu 2015ean, 2014an baino askoz ere gutxiago. 2015ean EEBren urteroko jardunaldia egin ez izanak ere zerikusia horretan du, delako ekitaldiak oihartzun mediatiko handia baitu.

EEBren blogaren saioak, bestalde, %28 hazi dira urte batean, eta %23 bere bisitari bakarrak. Hazkunde horrek prentsan ere izan du eragina, lehenbiziko aldiz, blogean argitaratutako zenbait artikuluren berri eman dute eta.

	EEBren WEBGUNEA			EEBren BLOGA		
	BISITARI BAKARRAK	SAIOAK	URTEKO IGOERA	BISITARI BAKARRAK	SAIOAK	URTEKO IGOERA
2015	10.744	14.219	-%42,39	2.542	3.193	%27,72
2014	22.012	24.682	%34,44	2.072	2.500	-%16,67
2013	14.533	18.359		2.470	3.000	

Blogak 19 gaurkotasun-artikulu argitaratu ditu etxebizitzaren sektoreari buruz (2014an baino 7 gehiago), bai eta bi elkarrizketa sakon ere:

EEBren newsletterra

2015ean **424 harpidedun zituen EEBren aldizkako newsletterrak** (2014an baino %13 gehiago). Etxebizitzaren sektorearen berririk garrantzitsuenen eta EEBren berezko jardueren gaineko buletina da, alegia.

2015ean **hiru newsletter** argitaratu dira (2014an baino bat gehiago).

Martxoko newsletterra:



ZIFRAK

EAEko Eraikuntzari eta Etxebizitzari Buruzko Estatistika, 2014ko 4. hiruhilekoa

- Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, behera egin du, 2014ko hirugarren hiruhilekoan, obrak egiteko eman diren baimenen kopurua (Bizkaiari egotzi diezaloke), hala ere, kopuru horrek gora egin du 2013ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta. Finkatu egin da birgaitze-lanak egiteko obra-lizentzien nagusitasuna.
- Maila positiboak erdietsi dituzte eraikuntza berriko obretarako lizentziak urteik urtera eta jarduera-sektore guztietan, industria eta energia barne.
- Se recupera la previsión de viviendas de nueva planta.

Etxebizitza eta luzoruaren alorrean jarduketaren babestuen finantziazioa, 2014ko 4. hiruhilekoa

- Aitortutako diru-jaguntza (metatutako datuak): 15.134 eskaera eta 13.469.692 gordetako diru-jaguntza.
- Onetsitako maileguak (metatutako datuak): 543 mailegu eta 48.617.623 euro onetsiak.

Etxebizitza hasiak eta bukatuak, 2014ko 4. hiruhilekoa

- Etxebizitza bukatuak: Etxebizitza babestu bukatuen kopurua 2.239 da. Lurralde Historikoen arabera, % 41 Bizkaiari dagozkie, % 33 Gipuzkoari eta gainerako % 26 Arabari.
- Etxebizitza hasiak: EAEn hasitako babes ofizialeko 1.481 etxebizitza, non Bizkaiaren (% 72) eta Gipuzkoaren (% 26) pisua adierazgarria baita.

Uztaileko newsletterra:



Birgaitze-tailerra Partaidetzarako gunea

10. zkia, 2015eko Uztailea - | [eus](#) | [es](#)



Eusko Jaureritzako Etxebizitza sailburuordetzak lan-programa bati ekin dio, partaidetza prozesu baten bitartez arakatzeko zer beharizan sortu den Euskadin eraikinak birgaitzearen eta hiria eraberritu eta berronertzearen alorrean, krisi ekonomikoa eta finantziaketa eskuratzeko arazoak ikusita. Prozesuari hasiera eman zaito birgaitzearen zirkulazioaren eragile nagusien zuzeneko partaidetzarekin birgaitzeko laguntzei eta eremu andeatuen erregulazioari buruz egiten ari den araudi berria, ekarpen eta hausnarketa guztiak ongi etorriak izango direlarik.

Helburu horrekin, bi hausnarketa-tailer antolatu dira, bata Gasteizen (ekainaren 16an) eta bestea Bilbon (ekainaren 23an). Guztiak, 55 lagunek hartu dute parte. Erakunde hauekoko ziren parte-hartzaileak: Birgaitzeko Hirigintza Sozietateak, arkitekto-elkargoak, aparajadore-elkargoak, finka-administratzaile elkargoak, Eusko Jaureritzako zenbait sailak, eta Eraikune, SEA-UNECA eta Tecnaliak. Interes handiko balorazioak eta ekarpenak jasotzeko eta denen artean hausnarketa-erikete balio izan dute tailerrek.

Horrez gain, beste bi gune bideratu dira partaidetza hori osatzeko asmoarekin:
- web <http://etxebizitza.blog.euskadi.net>
- gobernu irekia web bitartez www.irekia.euskadi.eus

elkarrizketa
pedro rodriguez toyo
8/2013 Legeak, ekainaren 26koa, birgaitzeari eta hiri-berronertzeari eta -berrikuntzari buruzkoa, paradigma aldaketa dakar hiri-garapeneraren kudeaketan; horrela, hiri-



ETXEBIZITZAKO BEHATOKIA
OBSERVATORIO VASCO DE LA VIVIENDA

11. zkia, 2015eko Azaroa - | [eus](#) | [es](#)

Jardunaldietan eta hausnarketa guneetan parte hartzea

Sarritan Enplegu eta Gizarte Politika Saileko Etxebizitza Sailburuordetzak, gonbidapenak jasotzen ditu etxebizitzaren eremuari buruzko eztabaida eta hausnarketarako topaketetan eta jardunaldietan parte hartzeko.

Adibidez, 2015ko Kudeaketa Aurreratuaren Aste Europararen eremuan, Visesak jardunaldi bat antolatu zuten "Hiri-berroneratzea eta eraginkortasun energetikoa: kudeaketa-eredu berrietarantz" gaiaren inguruan.

Jardunaldiak Euskadin hiri-berroneratze integratua sustatzeko estrategiak eta ekimenak ezagutaraztea zuten helburu, baita horiek gauzatzeko aurrekusi diren kudeaketa-eredu berriak erakustea ere. Miren Saratxaga De Isla Enplegu eta Gizarte Politika Saileko Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen zuzendariak eta Etxebizitzaren Euskal Behatokiak txosten bat gehitu zuten honako hauek azaltzeko: hiri-birgaitzeak, -berritzeak eta -berroneratzeak egiteko Eusko Jaurlaritzaren laguntzen kudeaketa-eredu berriak, araudi berria aldatzeko egin diren partaidetza-prozesuak eta abiarazi diren finantziario-aukerak.

Bestalde, Etxebizitza eta Lurren Sustatzaile Publikoen Espainiar Elkarteak (AVS), Sailburuordetza gonbidatu zuten "Etxebizitzarako eskubidea eraikiz" jardunaldian hitzaldi bat aurkeztera, etxebizitzarako eskubide subjektiboaren, eta bere ezarpenaren eta gauzatzeko praktikoaren gainean eztabaidatzeko helburuarekin.

Azkenik, urriaren 2an EBak parte hartu du, 2014an sortu zen adituen lankidetzaren Sareak, zeinen kide den Behatokia, Bartzelonan antolatutako 2. topaketan. Kasu honetan, egungo etxebizitzako politika publikoaren alderdi batzuei buruz aritu zen: onuradunak, sarbide motak, eta etxebizitza eta bizitoki motak. Estatuko unibertsitateetako pertsona kualifikatuak, eta etxebizitza politika publikoaren gailan, udal eta autonomia erkidegoen berrikuntzekin diren gobernuen erantzukizun berrikalketa azalbidatu du.

Informazio-kontsultak eta legebiltzarreko galderak

2015ean zehar **45 kontsulta jaso dira Behatokiaren webgunearen bidez.**

Askotariko auziei buruzko eskaerak daude, baina bi dira usuenak:

- Gure argitalpenetan erabilitako kontzeptuei buruzko azalpenak.
- Jada argitaratutako informazioaren xehetasuna udal-mailan, lurralde historikoaren mailan edo eremu funtzionalean.

Eskatzaileen profilari dagokionez, enpresak (batik bat aholkulariak), partikularrak, ikasleak eta beste administrazioak aurkitzen ditugu.

Beti jartzen gara harremanetan EEBren bezeroekin, beren kontsulta bideratuko dela adierazteko bada ere (2015ean halako kasu bat egon da). Beste kasu batzuetan, eskatutako informazioa ez dugula jakinarazten dugu; 2015ean ez da halakorik gertatu.

Legebiltzarreko galderari dagokienez, Azterlan, Plangintza eta Aurrekontuen Zerbitzuak 2015ean erantzun behar izan dituen galderetatik **33k** (horietako askok hainbat galdera zituzten barruan) Etxebizitzaren Euskal Behatokiak argitaratutako txostenetan dute jatorria. Hortik ondoriozta daiteke zenbaterainokoa den horiek irakurtzeak Gobernuaren kontrol-lanetan diharduten legebiltzarkideengan duen eragina.

Legebiltzarreko galderak sorrarazi dituen txosten nagusia etxebizitza-politikaren urteroko ebaluazio-txosten integratua izan da, zalantzarik gabe. Izan ere, legebiltzarreko 26 galdera sortu ditu, eta gehienek hainbat galdera zituzten barruan.

Honako hauek dira, bada, legebiltzarreko 7 galdera eta interpelazio ekarri dituzten txostenak: bankuen berankortasunari buruzkoa (legez besteko proposamena egin zen 2014an, EEBk horri buruzko ikerketa egin zezan; 2015ean ere legebiltzarreko interpelazioak eta ikerketa berri bat sorrarazi ditu), kooperatibei buruzko txostena, etxebizitza hasiei eta amaituei buruzko estatistikak, etxebizitza hutsei buruzko estatistikak eta etxebizitza-behar eta -eskariari buruzko estatistikak.

EEBk idatzizko prentsan izaniko eraginak

2014an lehenbiziko aldiz egin zen EEBren txostenek edo jarduerak komunikabideetan izan zezaketen eraginaren kontrola. Eusko Jaurlaritzaren eguneroko prentsaren dosierra aztertzen da, Kabinetearen Zuzendaritzak bidalitakoa, EEB aipatzen duten artikulua egiaztatzeko asmoarekin.

Hortaz, kontuan hartu behar da idatzizko komunikabideen hautaketa bat dela, eta ez direla gizarte-sareak, irratia eta telebista aintzat hartzen. Automatizatu gabeko kontrola da (gizakiarena eta inperfektua) eta ez ditu hedabide guztiak kontuan hartzen.

2014an, 40 artikulutan hartu ziren erreferentzia gisa EEBren txostenak edo berezko jarduerak. **2015ean, prentsan izaniko eraginak 43 izan dira.**

Adibideak:

EL DIARIO VASCO

► 19 Enero, 2015

PAÍS: España
PÁGINAS: 4-5
TARIFA: 10550 €
ÁREA: 1263 CM² - 110%

FRECUENCIA: Diario
O.J.D.: 58487
E.G.M.: 253000
SECCIÓN: AL DIA



La deuda de los morosos en las comunidades de vecinos sube hasta los 73 millones en Euskadi

El Observatorio de la Vivienda estima que en una de cada cuatro juntas de propietarios (más de 21.000) hay cuotas o derramas pendientes

■ JAVIER MUÑOZ

SAN SEBASTIÁN. La morosidad en las comunidades de vecinos no deja de aumentar en el País Vasco a medida que se prolonga la crisis. El dinero que los propietarios adeu-



EL CORREO	PAIS: España	FRECUENCIA: Diario	
	PÁGINAS: 25	O.J.D.: 60453	
	TARIFA: 1528 €	E.G.M.: 419000	
	AREA: 135 CM² - 15%	SECCIÓN: OPINION	

▶ 28 Diciembre, 2015

EN PRIMER PLANO

COVADONGA SOLAGUREN
VICECONSEJERA DE VIVIENDA



A la expectativa. El mercado de la vivienda en Euskadi, según el Observatorio del Gobierno vasco, muestra indicios de actividad, tras el bloqueo provocado por la crisis. Y, sobre todo, dos variables trascendentes, el precio y los bancos, ya han de-

jado de ser vistas como un obstáculo en una sociedad que sigue manteniendo su preferencia por la propiedad. Como contrapunto, el Ejecutivo advierte del gran 'stock' de pisos sin vender, la subida de los alquileres y la asignatura pendiente de la rehabilitación.

eldiario.es 30/12/2015

eldiarionorte.es INFORMACIÓN CERCANA

Última hora | Territorios | Sociedad | Política | Economía | Cultura | Opinión

eldiarionorte Euskadi / Euskadi


¿Va en serio la recuperación inmobiliaria?

El Euzburbur está en su cota más baja, lo que anima a los compradores a solicitar una hipoteca, pero en la costa vasca un 24% de los pisos recién contruidos sigue sin venderse

Eduardo Azarola

19/12/2015 - 18:56h



GARA	PAIS: España	FRECUENCIA: Diario	
	PÁGINAS: 1.10-11	O.J.D.: 60453	
	TARIFA: 19688 €	E.G.M.: 85000	
	AREA: 2352 CM² - 210%	SECCION: PORTADA	

▶ 4 Octubre, 2015

EG3 LAS POLÍTICAS PÚBLICAS, FACTOR DETERMINANTE

EL DERECHO A LA VIVIENDA
MARCA RUMBO NORTE EN LA UE

Lankidetzak

2015ean, EEBk sektoreko agenteekin, adituekin eta akademikoekin dituen sareak eta lankidetzak hedatzen saiatu da. Hala, lankidetzak-hitzarmen bat sinatu zuen irailean **Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitatearekin**, Europako Batzordearen finantzaketa jasoko duena nazioarte-mailan ikerketa ekonomiko eta soziala egiteko.

Urte hartan ere, OI DP (**Parte hartzeko Demokraziaren Nazioarteko Behatokia**) sarearen laguntzaile eta bazkide bilakatu da. Munduko 500 hiri, entitate, erakunde eta ikerketa-zentro baino gehiago biltzen dituen sarea da, parte hartzeko demokraziaren esperientziak ezagutzeko, trukatzeko eta aplikatzeko helburu duena. Urtero, Herritarren Parte Hartzeari loturiko Jardunbide Egokien OI DP Saria antolatzen dute, eta, horren harira, EEBk **“Zure etxebizitza, gure konpromisoa” proiektua** aurkeztu du sarirako.

Hiriko etxezaintzari buruzko proiektu pilotua egitea proposatu da, Etxebizitza Bideratzeko Planaren herritarren parte-hartze prozesuaren ekarpenen ondorioz. Horretarako, **administrazioan** —hau da, Sant Cugat del Vallés-eko Udalean— PROMUSA enpresaren bitartez egindako lehen saiakuntzaren arduradunekin jarri gara harremanetan. 2016an berriz ekin beharko zaio martxan jarriko bada.

Eusko Jaurlaritzan, eta zehazkiago Eusko Jaurlaritzako Berrikuntza Publikoaren Plana 2014-2016 delakoan, bilerak eta lankidetzak egin izan dira proiektuak idazteko eta zehazteko hain garrantzizkoa den **Demokraziari eta Herritarren Parte Hartzeari buruzko Liburu Zuriaren** arduradun eta kudeatzaileekin. Halaber, **Parte Hartzerako Bidaia Gidan** aritu gara elkarlanean haiekin, hots, herritarren parte-hartzerako orientabideak, hurbilketa eta ibilbidea biltzen dituen gida berritzailean; horrek **Parte Hartzeko Prozesuak Ebaluatzeko Eredua** hartzen du barnean, zeina idazleen taldearekin ere aztertu dugun.

Illo horretan, EEBk **parte hartzeko prozesu** baten buru izan da, Etxebizitza Bideratzeko Plana 2013-2016 deritzonaren ondoriozko prozesuarena (Demokraziari eta Herritarren Parte Hartzeari buruzko Liburu Zuriaren idazleek jarraitutako proiektu pilotua izan da). Xedea EAEn birgaikuntzaren arloko jardun-eremuak erregulatzen dituen araudia berrikustea eta eguneratzea da, bai eta jada eraikitakoa kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzak egingo dituzten jabeekideen erkidego eta pertsonentzako laguntzak ere.

Krisialdi ekonomikoa eta finantzaletara iristeko arazoak ikusita, **Euskadin eraikinak birgaitzearen eta hiria eraberritu eta berroneratzearen alorrean** sortu diren premiak nabarmentzea helburu duen parte hartzeko prozesua da. Horretarako, adituek zuzendutako tailerrak antolatu dira, herritarren partaidetzarako informazio-karpak kokatu dira, galdeketak egin zaizkie diru-laguntzen onuradunei eta finka-administratzaileei eta, egun, eratorritako arau-aldaketan eta Komunikazio Planean dihardute. Bestalde, Euskadiko eraikinak birgaitzearen gaineko harreman eta sostengu garrantzitsuak sortzen ere lagundu du.

EEBren Hobekuntza eta Berrikuntza Plana 2015

EEBk **ISO 9001:2000 ziurtagiria** du duela urte asko. Haren kudeaketa-prozesuak kalitate eta etengabeko hobekuntzako dinamiketan oinarritzen dira. 2015ean, ikerketen kudeaketa ziurtatu da berriz ere eta EEBren informazioa eguneratu da.

EEB ezagutzera emateko eta horri interesgarri suerta dakizkiokeen berrikuntza-proiektuetan parte hartzeko helburuz proiektu berriei ekiteko ardura dela eta, hobetzeko jarduera- eta ekintza-lerro berriak irekitzen dira etengabe.

Beste alde batetik, **EEBren eta sailaren webgunearen diseinu** berria jarri da abian, edukien dinamismoa diseinuan ere islatu dadin eta bilaketak erraztasun handiagoz egin daitezen.

Nolanahi ere, haren arkitektura eguneratzeko asmoa dago dagoeneko, **gailu mugikorren eta tableten erabilerraztasuna** hobetze aldera.

Eusko Jaurlaritzaren Geografia Informazioko Sistema Korporatiboa (GISK) ezarri da EEBren webgunean (**Geo Euskadi**, alegia), etxebizitzaren eta gizartearen sektoreari buruzko (biztanleria, enplegua, etxebizitzaren etorkizuna, etab.) informazio-geruzen eskaera masiboarekin, datuak bisualki eta geografikoki erabili eta konbinatu ahal daitezen.

Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu Onaren Lege Aurreproiektuak ezarritako gidalerroei eta EEBren beraren ardurei jarraikiz, **EEBren webgunerako Social Business proiektu** bat abiarazi da. Horren bitartez, tresna egonkor batez baliatuz, gero eta informazio gehiago eta botere-kota handiagoa duen gizartearen komunikazio eta parte-hartze eskakizunei erantzuten saiatuko gara.

Igorritako edukia denok ulertzeko modukoa izatea da, hain zuzen, EEBren lehen hausnarketa gardentasunari dagokionez. Hori dela eta, 2016ko aurrekontua **infografiekin** garatu da, **2015-2016ko etxebizitza-programaren helburu estrategikoak** bi eraikin berdin balira bezala irudikatuz, non solairu bakoitzak helburuok garatzen dituen. Horrez gain, **Etxebizitza Sailburuordetzaren eta Etxebizitza taldearen aurrekontua** jabekideen erkidegoen marrazkiekin irudikatu da.

Big data edo datu masiboen proiektu bat ere garatu da, datu-base handien sistemak manipulatzeko eta prozesatzeko xede duena, harreman, abiadura, egiazkotasun eta balio hobeak lortzeko. Hori dela eta, EEBk makina bat datu duela aprobetxatuz, posible da, tresna mota hauen bidez, etxebizitzaren sektorean txit interesgarriak diren iragarpenak, profilak eta jokabideak aztertzea, bai eta haiei loturiko politika publikoak ere. Alde horretatik, eraikinen ikuskapen teknikoak eta horiek birgaikuntzaren sektorean duten eraginari buruzko ikerketa bati ekin zaio; erdietsitako emaitzak ikusita, ahaleginak egiten ari dira analisi-sistema masibo horiek beste etxebizitza-lerro batzuetan ezartzeko.

2015ean, lehenbiziko aldiz, erabiltzaileak energia-eraginkortasunaz kontzientziatzeko finantzaketa eskuratzeko proiektu bat aurkeztu du EEBk Europako beste kide batzuekin batera. **SAVE-IT** (Studying, pLaying and Validating Energy efficiency through the creation of an IT ecosystem) proiektuaren jomuga zen IKT soluzioetan oinarritutako ekosistema berria diseinatu eta garatzea. Horrek energia-kontsumoaz kontzientziatzeko aukera emango lioke kontsumitzaileari eta energia aurrezte aldera beren jokabidea aldatzeko adorea emango lieke herritarrei. H2020 europar proiektuaren eta *“New ICT-based solutions for energy efficiency EE-11-2015”* gaiaren barnean zegoen. Italiari, Britainia Handiari eta beste kide teknologiko eta akademikoak bezala, guri ere ez digute azkenean proiektua eman. Hala ere, guretzat ezezagunak ziren zenbait esparruri buruzko ezagutzak lortu ditugu hari esker.

Ez dago zalantzarik txosten honetan islatutako baino jardura gehiago egon direla (legebiltzarreko interpelazioak, Kabinetearantzako laguntza, etab.). Horregatik, 2015eko EEBren memoria **hurbilketa** baizik ez da izan; helburua da 2016an profesionaltasun eta kalitate berarekin mantendu edo haztea.